

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO UDALA

#### **Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2020ko ordainagiriak jendaurrean jarri eta kobratzea**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2020ko errolda egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzaten. Horretarako hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Halaber, iragartzen da zerga epe hauetan kobratuko dela:

Borondatezko epea: 2020ko martxoaren 17tik apirilaren 17ra.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako berez eta besterik gabe betearazte aldia hasiko da. Horrek berarekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, 6/2005 Foru Arau Orokorrak, zergenak, 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, baita premiamendu bidearen kostuak ere, hala badagokio.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Gesaltza Añana, 2020ko martxoaren 5a

*Alkate-lehendakaria*

**JUAN CARLOS MEDINA MARTÍNEZ**